



EUDELen gaitzespena Vitoria-Gasteizen gertatutako emakumearen erailketaren aurrean

EUDELek gaitzespenik irmoena azaldu nahi du Vitoria-Gasteizen izan zen emakumearen hilketen aurrean, eta elkartasuna adierazten die biktimaren senideei eta hurbilekoei.

EUDEL-[Berdinsareak](#) gogorarazten du heriotzek emakumeenganako indarkeriaren arazoaren alderdi bat baino ez dutela erakusten, izan ere, egoera hori emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunean sortzen da.

Emakumeenganako indarkeria (psikologikoa, ekonomikoa, fisikoa, sexuala, bikarioa...) emakumeen duintasunaren eta segurtasun fisiko nahiz moralaren aurkako eraso larria da, eta, ondorioz, giza eskubideen urraketa larri eta onartezina.

Tragedia honek berriro dakarkigu gogora hala erakundeek nola euskal gizarte osoak daukagun erantzukizuna, gure udalerrietan Berdintasuna eraginkor egiteko. Zentzu horretan, gure sentsibilizazio eta prebentzio ekintzak indartzen jarraitu behar dugu, etorkizuna ordezkatzeko dutenei zuzenduta, gure herritar gazteenei zuzenduta, alegia.

EUDELek bat egiten du gaitzespena adierazteko Vitoria-Gasteizko Udalak deitu duen elkarretaratzearekin, gaur, maiatzak 29, 12:00etan, udaletxearen aurrean. Era berean, Euskadiko Udalen Elkarteak bat egiten du antola litezkeen gaitzespen-ekimen guztiekin.

2023ko maiatzak 29an.

Declaración de repulsa de EUDEL ante el asesinato de una mujer en Vitoria-Gasteiz

EUDEL muestra su más enérgica repulsa y condena ante el asesinato de una mujer en Vitoria-Gasteiz, y traslada su solidaridad a la familia y personas cercanas a la víctima.

EUDEL-[Berdinsarea](#) recuerda que las muertes sólo muestran una parte del problema de la violencia contra las mujeres cuyo caldo de cultivo se genera en la desigualdad de mujeres y hombres.

La violencia que en sus diferentes formas (psicológica, económica, física, sexual, vicaria...) se ejerce contra las mujeres, supone un serio atentado contra su dignidad e integridad física y moral; en consecuencia, una grave e intolerable violación de los derechos humanos.

Esta tragedia nos enfrenta a la responsabilidad que tenemos las instituciones y el conjunto de la sociedad vasca en hacer efectiva la Igualdad en nuestros municipios. En este sentido, debemos seguir reforzando nuestras acciones de sensibilización y prevención con quienes representan el futuro, nuestras ciudadanas y ciudadanos más jóvenes.

EUDEL se suma a la concentración convocada por el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, hoy lunes 29 de mayo, a las 12:00 horas, frente al Ayuntamiento, así como a todas las muestras de repulsa que se organicen.

A 29 de mayo de 2023



Tel. 94 423 15 00 eudel@eudel.eus www.eudel.eus
Ercilla, 13 (48009 Bilbao)